

# Guía de recursos y servicios

eskola denon araba

# Baliabide eta zerbitzu gida

eskola denon araba

Con la elaboración de esta guía hemos pretendido dotar a las AMPAs federadas de una herramienta que sirva para conocer con un poco de detalle la actividad que viene desarrollando Denon Eskola, ya sea de apoyo a la actividad de las propias AMPAs como de representación de las mismas ante las diferentes entidades. Asimismo, creemos que este documento puede ser de gran utilidad para todos los padres y madres que están desarrollando su trabajo en las AMPAs ya que les va a permitir conocer los diferentes servicios, recursos y posibilidades de apoyo que se les ofrece desde Denon Eskola.

# index


## denon eskola

Modelo transformador
Modelo creativo
Modelo que apuesta por la euskaldunización
Modelo integrador
Participación
Interlocución

## funcionamiento

La Asamblea General de Denon Eskola
Denon Eskola y su Junta Directiva
Denon Eskola y las AMPAS
Denon Eskola y los Grupos de Trabajo

## servicios

Formación
Información y Asesoramiento
Interlocución
Seguro de Responsabilidad Civil
EHIGE

## recursos

Sede
Personal técnico
Horario de atención

denon eskola

**Denon Eskola es la federación de AMPAs (Asociaciones de madres y padres de alumnos/as) de la escuela pública de Álava, creada en 1997, que trabaja a través de la propuesta y la reivindicación por un modelo educativo público vasco transformador, creativo, que apuesta por la euskaldunización, integrador y laico aunando esfuerzos, fomentando y facilitando la participación de las familias en el ámbito socioeducativo y actuando como interlocutora ante las instituciones y la sociedad.**

## modelo transformador

Porque quiere transformar los valores sociales imperantes, tales como el éxito, el consumo no responsable, la exclusión, la competitividad y la desigualdad de género.

Porque se sitúa fuera del pensamiento único.

Porque es un modelo educativo comprometido socialmente, centrado en la persona, solidario y que apuesta por la libertad individual, la justicia, la responsabilidad social y el bienestar colectivo e individual.

## modelo creativo

Porque es personalizado y plural, estimulante, atrayente, coparticipado, con una imagen propia y se renueva constantemente.

## modelo que apuesta por la euskaldunización

Porque partiendo de una realidad castellanoparlante en el entorno, se está trabajando para que las dos lenguas tengan la misma relevancia tanto en la escuela como en las familias y para que todo el mundo tenga la capacidad de expresarse en ambas lenguas y decidir libremente en cuál se expresa.

## modelo integrador

Porque suma sin asimilar y está abierto a la diferencia y a la diversidad en cuestiones físicas, psíquicas, intelectuales, económicas, culturales, étnicas, linguísticas, ideológicas, religiosas y de orientación sexual.

denon eskola

## participación

La entendemos como la implicación de manera democrática de las familias, haciendo del diálogo tendente al consenso (no es cuestión de mayorías-minorías, sino de recoger "un poquitode todos/as") una de sus claves a la hora de que se compartan tareas educativas y de que las familias se sientan responsables de los hijos/as, grupo, centro... Es un ejercicio de tolerancia que exige esfuerzo e implicación.

## interlocución

Esta labor de interlocución debe ejercerse de abajo a arriba, partiendo de las familias y siguiendo con las AMPAs, Denon Eskola, Administración y entidades públicas y privadas, y sociedad en general y de manera recíproca entre todos los sujetos, apostando por el tratamiento pacífico de los conflictos, con propuestas acerca de temas / asuntos colectivos e individuales con un interés general. Debe ser objetiva, dialogante, reflexiva, con empatía, firme, coherente con la misión, objetivos y líneas de Denon Eskola.



eskola denon araba



# funcio-namiento

## la asamblea general

Es el órgano superior de gobierno y administración de la Federación y está integrada por representantes de todas las AMPAs federadas.

La Asamblea de la Federación se convierte en un espacio de encuentro y decisión muy importante, en el que están representadas la opinión y el sentir no sólo de las juntas directivas de las diferentes AMPAs, sino de las familias que nos apoyan en los centros educativos.

En este sentido hay que destacar la importancia de que todas las AMPAs participemos activamente en esas asambleas colaborando así en la gestión de la Federación y, además, trasladando el sentir y la situación de cada centro escolar.

## la junta directiva

Contamos con una Junta Directiva que trata de representar las distintas realidades de los centros pertenecientes a Denon Eskola. Sólo así se consigue una Federación que represente los intereses de la mayoría. Además, siempre está abierta a la participación de todos/as los/as miembros de las AMPAs que deseen aportar.

Somos conscientes de que el tiempo es una de las principales dificultades que tenemos todos y todas para comprometernos en cuestiones comunitarias. Por este motivo, se hace necesaria una buena organización de la Junta Directiva, con un reparto de responsabilidades, y con herramientas metodológicas que nos ayuden a ser más eficaces. En definitiva, se trata de que repartamos de la responsabilidad y de que a cada persona nos corresponda una porción que podamos asumir.

Si se consigue una buena organización del trabajo, los efectos no serán sumatorios sino multiplicadores. Y estos efectos van a trascender en las propias AMPAs.

La formación se convierte en este sentido en un elemento imprescindible, y Denon Eskola se encargará de formar a las personas que participen activamente en la Federación.



## denon eskola y las ampas

Es fundamental que todas las AMPAs que formamos Denon Eskola nos sintamos protagonistas y responsables de la Federación. Para ello, es necesario tener conocimiento de los proyectos que se desarrollan, de los recursos que se destinan a los mismos y de los servicios comunes de los que nos dotamos todas las AMPAs y de los que nos hacemos corresponsables, en el sentido más amplio de la palabra.

Además, para Denon Eskola se hace necesario que la propia Federación conozca la situación de las AMPAs y de los centros educativos y para ello son muy importantes los canales de comunicación entre Denon Eskola y las AMPAs que deben ser bidireccionales. El objetivo es que las propuestas fluyan en ambas direcciones, que las AMPAs participen en el diseño de Denon Eskola.

Como ya hemos dicho, las asambleas de la Federación se convierten así en un espacio de encuentro y decisión importante pero, además, existen en Denon Eskola otro tipo de espacios de participación para el debate, la reflexión y las propuestas como son la Junta Directiva, las comisiones de trabajo u otros que se puedan crear.

## denon eskola y los grupos de trabajo

En Denon Eskola se trabaja sobre diferentes áreas o temas a través de los grupos de trabajo o comisiones.
En este momento son varios los grupos de trabajo o comisiones que mantienen un funcionamiento estable y periódico:

- NORMALIZACIÓN LINGUÍSTICA
- LIBURTXO
- INTERCULTURALIDAD
- EDUCACIÓN EN VALORES
- DEPORTE ESCOLAR
- POLÍTICA EDUCATIVA

Es desde estos grupos de trabajo desde donde se diseñan, elaboran y desarrollan los diferentes programas y proyectos que se impulsan desde la Federación (Semana del Euskera, jornada de intercambio de libros, jornadas de debate y formación, charlas, folletos, materiales,…)

Además, existe la posibilidad de crear otros grupos de trabajo o comisiones para trabajar sobre temas o áreas que generen algún tipo de interés, problemática o inquietud en las AMPAs.



eskola denon araba

# servicios

**La constitución de federaciones o estructuras semejantes está motivada por la necesidad y el interés de unir esfuerzos a la hora de trabajar en temas comunes a las organizaciones que las conforman. Pero, además, es una buena fórmula para ahorrar esfuerzos y recursos y conseguir mayores resultados. Otra de las ventajas que aporta la unión de organizaciones es la posibilidad de dotarse de recursos comunes, a los que difícilmente podríamos acceder de manera individual, principalmente por la escasez de recursos económicos.**

**Tras varios años de funcionamiento, las AMPAs tienen un referente en Denon Eskola a la hora de recabar información y solicitar asesoramiento y ayuda sobre aquellos temas que les preocupan, así como a la hora de actuar como interlocutora ante las administraciones públicas y otras entidades.**

## formación

Desde Denon Eskola creemos que la adecuada formación de las personas que desempeñan responsabilidades en las AMPAs debe ser, en el terreno formativo, nuestro principal objetivo como Federación. Si las AMPAs funcionan bien y tienen claro sus objetivos mejorará la calidad de la educación de los centros y la de nuestra propia actividad como Federación.

Todos los cursos se produce una importante renovación entre los miembros de las juntas directivas de las AMPAs. Muchos de los nuevos miembros de las juntas no tienen experiencia en estas tareas y se encuentran desorientados y desbordados ante la responsabilidad asumida.

Por ello, desde Denon Eskola ofertamos varios cursos sobre gestión de AMPAs y participación en los que, a partir de un marco teórico, intercambiamos conocimientos y experiencias que puedan servirnos a todos/as en nuestra tarea diaria al frente de nuestras AMPAs:

- GESTIÓN DE UNA AMPA
- REGLAMENTO DE ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO (ROF)
- CONSEJOS ESCOLARES (OMR)
- PROYECTO EDUCATIVO DEL CENTRO
- …

De una buena gestión escolar y de crear un adecuado clima para que el rendimiento escolar sea óptimo y exista una participación real de toda la Comunidad Educativa depende en gran medida la calidad de enseñanza.

Las AMPAs no podemos seguir siendo entidades que cumplen funciones burocráticas, cobran cuotas a sus socios, financian las actividades extraescolares y organizan alguna excursión o fiesta. Las AMPAs han de ser organizaciones vivas donde los padres y madres se formen e informen y participen en actividades.

## AYUDAS PARA ACTIVIDADES FORMATIVAS

Desde Denon Eskola queremos colaborar con las actividades formativas que desarrolláis desde las AMPAs, subvencionando dichas actividades en la medida de nuestras posibilidades.

Lo único que se os pide es que lo podamos publicitar en nuestra web y que sean abiertas para el resto de AMPAs.

## información y asesoramiento

Mantener informadas a las AMPAs sobre temas de interés para los padres y madres y para los centros y su funcionamiento, así como asesorarles a la hora de resolver sus dudas o problemas es una de las tareas fundamentales de Denon Eskola.

En este sentido, son varias las líneas en las que Denon Eskola desarrolla su actividad:

- Envío sistemático de convocatorias de ayudas y subvenciones.
- Información y asesoramiento sobre novedades educativas:
  - Circulares de comienzo curso.
  - Legislación y normativa.
  - Cursos, jornadas y seminarios.
  - Actividades de interés para los centros.
- Realización de documentos, diversos materiales y folletos informativos que pueda servir para todas las AMPAs.
- Realización de reuniones de tipo informativo o para debatir problemas particulares o comunes a varios centros.
- Atención y recogida de las demandas de las AMPAs.

### boletín denona



Es una publicación de carácter mensual en la que se informa sobre temas y aspectos de interés para las AMPAs y los padres y madres en general.

Pretende informar de una forma concisa y ágil de todos aquellos temas que consideramos de interés. Se trata más de informar, plantear y proponer temas que de profundizar en ellos, de transmitir la información necesaria en el día a día de los padres y madres y de las AMPAs.

Además, cuenta con un apartado que es la agenda de eventos de interés que sirve como recordatorio para las AMPAs.

Por otro lado, queremos que sea un elemento útil en el entorno de la AMPA y del centro escolar, de manera que se plantea en un formato DINA-3 para que pueda ser expuesto en los tablones de anuncios y lugares específicos facilitando así la difusión.

### página web

Las nuevas tecnologías de la comunicación se han implantado firmemente en nuestra sociedad, facilitando de esta manera a la ciudadanía el acceso a la información.

La meta de nuestra Página Web es conseguir los siguientes objetivos:

- Ofrecer información puntual, materiales y documentación sobre todos los temas de interés para las AMPAs y su funcionamiento.
- Mejorar la comunicación con las AMPAs y dotarles de una herramienta que facilite su trabajo a través de la INTRANET exclusiva para ellas.
- Abrir un nuevo canal de comunicación, participación y debate sobre temas educativos para las familias.
- En definitiva, deseamos consolidar www.denoneskola.org como un espacio de referencia para los padres y madres y las AMPAs, tanto a la hora de acceder a la información como para su uso como herramienta de trabajo.



eskola denon araba



## ▶ oficina de información sobre educación

Se trata de un proyecto que se desarrolla en colaboración entre el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y Denon Eskola. El objetivo es ofertar a la ciudadanía en general y a las AMPAS en particular, un servicio con el fin de proporcionarles información, asesoramiento y formación sobre temas relativos a la educación y la participación de madres y padres en el sistema educativo vasco.

Hoy día la oferta informativa en general es tan amplia que la experiencia nos indica que se necesitan recursos especializados. Esta es la propuesta de la Oficina de Información sobre Educación de Denon Eskola, ofertar una información específica sobre el sistema educativo vasco, con el objeto de facilitar la toma de decisiones de las familias alavesas.

Vistos los resultados obtenidos hasta ahora por la Oficina de Información sobre Educación, creemos que tanto entre padres y madres como entre los propios jóvenes sigue existiendo una necesidad de información y asesoramiento en materia educativa (desconocimiento de la diversidad y características de la oferta escolar, de los derechos que tienen como padres y/o tutores, de los cauces de participación en la vida escolar, ayudas y becas, etc.).

En este sentido cabe destacar que la Oficina de Información cuenta con un apartado especializado en atención a las familias de alumnado inmigrante ya que es un colectivo con unas situaciones y una problemática muy específicas.

Además la Oficina de Información funciona a modo de Observatorio sobre el Sistema Educativo Vasco ya que a través de las consultas y demandas que se reciben, junto con los diferentes estudios que se promueven desde la misma, se realizan informes anuales de diagnóstico de las carencias detectadas y de la problemática surgida para que sean trasladados a aquellas entidades administrativas que tienen responsabilidades en materia educativa.

**Se atiende tanto de forma directa en la sede de Denon Eskola como a través del teléfono 945 27 31 40 o por e-mail: denon informacion@ehige.org**

### OBJETIVOS:

- Ofrecer un servicio de información de calidad sobre temas relacionados con el sistema educativo.
- Detectar necesidades no cubiertas o cubiertas de manera deficiente.
- Recopilar experiencias de interés que se estén desarrollando en los centros educativos.
- Aportar información a cuantos organismos e instituciones sea necesario para el desarrollo de sus funciones.

servicios

## ▶ interlocución

El hecho de que las AMPAs de los centros públicos de Álava se hayan unido para formar parte de Denon Eskola supone aunar esfuerzos para aumentar la capacidad y el poder de interlocución.

Hoy en día Denon Eskola se ha convertido en un interlocutor indispensable tanto ante las administraciones públicas (Gobierno Vasco, Diputación y ayuntamientos) como con diferentes entidades privadas en todo lo que tiene que ver con la educación.

## ▶ seguro de responsabilidad civil

Todas las AMPAs para el desarrollo de sus actividades habituales deben contar con un seguro de responsabilidad civil que las cubra.

En este sentido, Denon Eskola cuenta con un Seguro de Responsabilidad Civil para todas las AMPAs federadas. Dicho seguro cubre la Responsabilidad Civil de la AMPA y de todas aquellas personas en las que delegue para el desarrollo de todas las actividades habituales que organiza. Podéis solicitar una copia de la póliza correspondiente a vuestra AMPA en la oficina de Denon Eskola.



## ▶ ehige

A su vez, Denon Eskola en asociación con el resto de federaciones de AMPAs vascas es miembro de EHIGE (Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteen Konfederazioa-Confederación de Asociaciones de Madres y Padres de Euskal Herria) en la cual y en base al trabajo conjunto de las federaciones se desarrollan diferentes iniciativas y proyectos además de actuar como interlocutor ante la administración para los temas que son comunes a todos los territorios.

**En este sentido cabe destacar que desde la Confederación EHIGE se impulsan las siguientes iniciativas:**

- **Fiesta de la Escuela Pública Vasca, que se celebra anualmente cada primer domingo de junio.**
- **Revista Ehige, publicación bimensual sobre temas educativos.**



eskola denon araba

# recursos

## sede

La sede de Denon Eskola se encuentra en la calle Florida Nº 62-A, 2º piso. Allí encontraréis además de dos despachos en los que se desarrolla la actividad habitual un local de reuniones con capacidad para unas 30 personas que está a disposición de todas las AMPAs federadas. Simplemente debéis consultar la disponibilidad de la misma y realizar por adelantado la reserva bien por teléfono o por e-mail. También podréis disponer de un ordenador portátil y de un proyector como apoyo para las reuniones.

Por otro lado también tendréis a vuestra disposición una pequeña biblioteca especializada por temas con libros y materiales de consulta y apoyo que pueden resultar de gran interés y ayuda para las personas que desarrolláis vuestra actividad en las AMPAs.

**DENON ESKOLA**

C/ Florida 62 - A, 01005 Vitoria-Gasteiz
Tfno: 945 25 61 62; Fax: 945 25 76 80
E-mail: info@denoneskola.org
www.denoneskola.org

**HORARIO DE ATENCIÓN**

HORARIO DE INVIERNO:
- LUNES a JUEVES de 9:00-14:00 y de 16:00 a 20:00
- LUNES a VIERNES 9:00-14:00

HORARIO DE VERANO (del 15 de junio al 15 de septiembre):
- LUNES a VIERNES de 8:00-15:00

## personal técnico

La Federación cuenta con cuatro trabajadores/as entre los que se reparte la responsabilidad de las diferentes áreas de actividad de Denon Eskola. Para cualquier consulta o duda respecto a cualquiera de dichas áreas podéis contactar directamente con el técnico de referencia correspondiente:

- **Administración / Contabilidad / Liburtxo:** SONIA - 945 25 61 62 - savelino@denoneskola.org
- **Valores / PINDAR / Ofic. Información:** MAITE - 945 27 31 40 - mruizdealegria@denoneskola.org
- **Euskera / Deporte / Web / Denona / Materiales:** IBON - 945 25 61 62 - iidirin@denoneskola.org
- **Coordinación / Política Educativa / Ofic. Información:** SANTA - 945 27 31 40 - santa@ehige.org






# baliabideak

## egoitza

Denon Eskolaren egoitza Florida kalean, 62-A, 2. solairuan dago. Bertan ohiko jarduerak burutzeko bulego bi daude eta horrez gain 30 pertsonarentzat lekua daukan bilerak egiteko areto bat aurkituko duzue, Denon Eskolan federatutako IGE guztiek erabil dezakezuena hain zuzen ere. Behar duzuen egunean libre dagoen ziurtatu eta erreserba, telefonoz zein posta elektronikoz, baino ez duzue egin behar. Bileratarako erabilgarria izan daitezkeen eskuko ordenagailua eta proiektorea ere badaude eskuragarri.

Bestalde badaukazue ere liburutegi espezializatu txiki bat gaika antolaturik zeinean IGEetan lanean ari zareten gurasoentzako oso interesgarriak eta lagungarriak izan daitezkeen liburu eta kontsultarako materialak aurkituko dituzuen.

**DENON ESKOLA**

Florida kalea 62 - A, 01005 Vitoria-Gasteiz
Tfnoa: 945 25 61 62; Faxa: 945 25 76 80
E-posta: info@denoneskola.org
www.denoneskola.org

**ARRETA ORDUTEGIA**

NEGUKO ORDUTEGIA:
- ASTELEHENEtik OSTEGUNera 9:00etatik-14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara
- ASTELEHENEtik OSTIRALera 9:00etatik-14:00etara

UDAKO ORDUTEGIA (ekainaren 15etik irailaren 15era):
- ASTELEHENEtik OSTIRALera 8:00etatik-15:00etara

## teknikari taldea

Federazioan lau langile aritzen dira eta Denon Eskolaren ekintza esparru ezberdinen gaineko ardura haien artean banatzen da. Edozein ekintza esparru horietako baten inguruko kontsultarik edo zalantzarik izanez gero ardura daraman teknikariarekin zuzenean kontaktatzeko aukera duzue:

**Administrazioa / Diruzaintza / Liburtxo:** SONIA - 945 25 61 62 - savelino@denoneskola.org
**Baloreak / PINDAR / Informazio Bulegoa:** MAITE - 945 27 31 40 - mruizdealegria@denoneskola.org
**Euskara / Kirola / Web / Denona / Materialak:** IBON - 945 25 61 62 - iidirin@denoneskola.org
**Koordinazioa / Hezkuntza Politika / Informazio Bulegoa:** SANTA - 945 27 31 40 - santa@ehige.org




Gida honekin federatutako IGEek Denon Eskolak garatzen duen lana, bai IGEei haien zereginetan laguntza eskaintzearena zein IGEak erakunde ezberdinen aurrean ordezkatzearena, zehaztasunez ezagutzeko baliabide bat eskaini nahi dugu. Era berean, dokumentu hau IGEetan lanean ari diren gurasoentzako oso erabilgarria dela uste dugu Denon Eskolatik eskaintzen diren zerbitzu, baliabide eta laguntza aukera ezberdinak ezagutzea errazten duelako.

# index


## denon eskola

- Eredu transformatzailea
- Eredu kreatzailea
- Euskalduntzearen aldeko apustua egiten duena
- Eredu integratzailea
- Parte hartzea
- Solaskidetza

## funtzionamendua

- Denon Eskolako Batzar Orokorra
- Denon Eskolako Zuzendaritza Batzordea
- Denon Eskola eta Guraso Elkarteak
- Denon Eskola eta Lan Taldeak

## zerbitzuak

- Formazioa
- Informazioa eta Aholkularitza
- Solaskidetza
- Erantzukizun Zibileko Asegurua
- EHIGE

## baliabideak

- Egoitza
- Teknikari taldea
- Arreta ordutegia

# denon eskola

**Denon Eskola Arabako eskola publikoko IGEen (Ikasleen Guraso Elkarte) Federazioa da, 1997an sortutakoa, eta hezkuntza eredu publiko transformatzaile, kreatzaile, euskalduntzearen aldeko, integratzaile eta laiko baten alde proposamen eta aldarrikapenen bidez lan egiten du, ahaleginak bateratuz, eskola esparruan familien parte hartzea bultzatu eta erraztuz eta instituzio eta gizartearen aurrean solaskide legez arituz.**

## ▶ eredu transformatzailea

Nagusitzen ari diren gizarteko baloreak aldatu edo transformatu nahi dituelako: arrakasta, arduragabeko kontsumoa, esklusioa, lehiakortasuna eta genero ezberdintasuna.

Pentsamolde bakarretik at kokatzen delako.

Gizartearekin konprometitutakoa, pertsonan oinarritutakoa eta solidarioa delako eta banakakoaren askatasuna, justizia, gizarte erantzukizuna eta taldearen zein banakakoaren ongizatearen alde apustu egiten duelako.

## ▶ eredu kreatzailea

Pertsonalizatua eta plurala, estimulagarria, erakargarria, berezko irudiduna eta etengabe berritzen delako.

## ▶ euskalduntzearen aldeko apustua egiten duena

Inguruneko errealitate erdaldunetik abiatuz hizkuntza biak familian eta eskolan maila berean egoteko lanean ari delako, pertsona guztiek hizkuntza bietan adierazitako ahalmena izan eta askatasunez zein erabili erabaki dezaten.

## ▶ eredu integratzailea

Asimilatu gabe batzen duelako eta edozein ezberdintasun eta dibertsitaterentzat ateak zabalik dauzkalako: fisikoak, psikikoak, intelektualak, ekonomikoak, kulturalak, etnikoak, linguistikoak, ideologikoak, erlijiozkoak, eta sexu aukerazkoak.

denon eskola

## ▶ parte hartzea

Familien inplikazio demokratiko bezala ikusten dugu, kontsentsuak (ez da “gehiengoen” gauza, guztiengandik apurra jasotzean datza) bilatzeko elkarrizketa oinarrizko elementua izanik. Familiak hezkuntzako zereginak konpartitzen aritu eta seme-alaben, taldeen eta ikastetxeekin arduraturik sentiarazi behar dira. Ahalegina eta inplikazioa eskatzen dituen tolerantzia ariketa da.

## ▶ solaskidetza

Solaskidetza funtzio hau behetik gora egin behar da, familietatik hasi, IGEekin jarraitu, Denon Eskola, Administrazio eta erakunde publiko zein pribatuak, gizartea orokorrean eta elkarrekin subjektu guztien artean. Beti ere gatazken konponbide baketsuaren aldeko apustua eginez eta interes orokorra duten gaien, taldekakoak zein indibidualak, inguruan proposamenak eginez. Objektiboa, elkarrizketarako irekia, erreflexiboa, enpatiaduna, sendoa, eta Denon Eskolaren misioarekiko, helburuekiko eta ildoekiko koherentea izan behar du.



eskola denon araba



# funtzio-namendua

## denon eskolako batzar orokorra

Federazioaren gobernu eta administrazio organo gorena da eta federatutako IGE guztietako ordezkariek osotzen dute.

Federazioaren Batzar Orokorra batzeko eta erabakitzeko gune garrantzitsu bihurtzen da, non IGE ezberdinetako zuzendaritza batzordeetako eta baita ikastetxeetan laguntza ematen diguten familien iritzi eta jarrerak ordezkaturik dauden.

Zentzu honetan azpimarratzekoa da IGE guztiok batzar orokorretan parte hartze aktiboa izateak duen garrantzia, modu horretan Federazioaren kudeaketan parte hartzen dugulako eta aldi berean ikastetxe bakoitzeko egoera eta sentipenak islatzen direlako.

## denon eskolako zuzendaritza batzordea

Daukagun Zuzendaritza Batzordean Denon Eskola osotzen duten ikastetxeen errealitate ezberdinak jaso nahi dira. Hori baita gehiengoaren interesak ordezkatuko dituen Federazioa lortzeko bide bakarra. Gainera, ekarpenak egin nahi dituzten IGEetako kideen parte hartzeari beti zabaltzen zaizkio ateak.

Jakin badakigu denbora falta dela guztiok bizitzen dugun oztopo nagusienetakoa gure komunitatearen gaietan konpromisoak hartzeko garaian. Horregatik, guztiz beharrezkoa da Zuzendaritza Batzordearen antolaketa egoki bat, erantzukizunak banatuz, eta eragingarriagoak izaten laguntzen duten lanabes metodologikoak erabiliz. Azken finean, erantzukizunak batzean datza bakoitzak ahal duen neurriko parte bat bere gain hartuz.

Antolaketa egokia lortuz gero, ondorioak ez dira batuketarenak biderkatzearenak baizik. Eta ondorio horiek IGEetan bertan eragiten dute.

Honen haritik formazioa ezinbesteko elementu bihurtzen da, eta Denon Eskolak bere gain hartzen du Federazioan aktiboki parte hartzen duten pertsonen formazioa.

## denon eskola eta guraso elkarteak

Oso garrantzitsua da Denon Eskola osotzen dugun IGEak Federazioaren protagonistak eta era berean arduradunak garela sentitzea. Horretarako beharrezkoa da burutzen diren proiektuen inguruko informazio osoa izatea, haietarako erabiltzen diren baliabideak ezagutzea eta IGE guztientzako antolatutako zerbitzuak ere ezagutzea, hori guztiaren erantzukizuna, hitzaren zentzurik zabalenean, gurea ere badelako .

Gainera, Denon Eskolarentzat ezinbestekoa da Federazioak berak IGE eta ikastetxeen egoeraren inguruko informazioa izatea, eta horretarako oso garrantzitsuak dira Denon Eskola eta IGEen arteko norabide bikoitzekoak izan behar duten komunikazio bideak. Proposamenak norabide bietan ibiltzea lortu nahi da, IGEek Denon Eskolaren diseinuan parte hartuz.

Esan dugun bezala Federazioaren batzar orokorrak elkartzeko eta erabakitzeko gune garrantzitsu bihurtzen dira, baina, horrez gain badira Denon Eskolan parte hartu, hausnarketa egin eta proposamenak egiteko bestelako espazioak, hala nola Zuzendaritza Batzordea, lan taldeak eta sor daitezkeen bestelakoak.

## denon eskola eta lan taldeak

Denon Eskolan esparru edo gai ezberdinen gainean lan egiten da lan talde edo batzordeen bidez. Une honetan hainbat dira funtzionamendu egonkorra duten lan talde edo batzordeak:

- HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA
- LIBURTXO
- KULTURARTEKOTASUNA
- BALOREEN HEZKUNTZA
- ESKOLA KIROLA
- HEZKUNTZA POLITIKA

Lan talde hauetatik diseinatu, prestatu eta garatu egiten dira Federaziotik bultzatzen diren programa eta proiektu ezberdinak (Euskararen Astea, liburuen trukerako jardunaldia, eztabaidarako jardunaldiak eta formazioa, hitzaldiak, eskuko orriak, materialak,...).

Gainera IGEetan interesgarriak direlako edo problematikak edo kezkak eragiten dituztelako landu nahi diren gai edo esparruak jorratzeko beti dago bestelako lan talde edo batzordeak antolatzeko aukera.



eskola denon araba

# zerbitzuak

**Federazioak edo antzerako egiturak sortzearen arrazoia osotzen dituzten elkarteek gai komunen inguruan lan egiteko garaian ahaleginak bateratzeko behar eta interesak eragiten dute. Baina, horrez gain, formula egokia dugu ahaleginak eta baliabideak aurreztu eta emaitza hobeagoak lortzeko.**

**Elkarteen batzeak ahalbidetzen duen beste abantailetako bat baliabide komunak izatearena da, banaka eskuratzeko aukerarik ez baitago, baliabide ekonomikoen faltagatik batez ere.**

**Hainbat urtetan funtzionatzen egon ondoren IGEek erreferente bat dute Denon Eskolan informazioa lortu, aholkularitza eskatu eta kezka eragiten duten gaien inguruko laguntza lortzeko garaian, eta gainera administrazio publiko zein bestelako erakundeen aurrean aritzeko ordezkari egokia suertatzen zaie.**

## formazioa

Denon Eskolan IGEetan erantzukizun ezberdinak garatzen dituzten pertsonek formazio egokia izatea Federazio legez gure helburrurik nagusienetakoa dela esan dezakegu formazioaren alorrean. IGEek ondo funtzionatzen badute eta helburuak argi badauzkate ikastetxeetako hezkuntzaren kalitatea eta gure Federazioaren eginkizuna bera ere hobetu egingo dira.

Ikasturte guztietan IGEetako zuzendaritza batzordeetan kideen berrikuntza ugari ematen da. Zuzendaritza batzordeetako kide berriek kasu askotan ez dute zeregin hauetan esperientziarik eta galduta eta gainezkaturik aurkitzen dira onartutako erantzukizunen aurrean.

Hori dela eta, IGEen kudeaketa eta parte hartzearen inguruko hainbat ikastaro eskaintzen ditugu, zeinetan, marko teoriko batetatik abiaturik ezagutzak eta esperientziak trukatzen ditugun gure egunerokotasunean IGEen buruan guztiontzat erabilgarriak izan daitezen:

- IGEAREN KUDEAKETA
- ANTOLAKETA ETA JARDUERA ARAUDIA (AJA)
- ESKOLA KONTSEILUAK (OOG)
- IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA
- …

Hezkuntzaren kalitateak hiru zutabe nagusi dauzka: eskola kudeaketa egokia burutzea, eskola atarramendu ona eragiten duen giro egokia sortzea eta Eskola Elkarte osoaren benetako parte hartzea egotea.

IGEek ezin dugu funtzio burokratikoetan gelditzen diren erakundeak izan, bazkideei kuotak kobratuz, eskolaz kanpoko ekintzak finantzatuz eta txango edo jairen bat antolatuz.

IGEek erakunde biziak izan behar dute, zeinetan gurasoek formatu, informatu eta ekintzetan parte hartzen duten.

## FORMAZIO EKINTZETARAKO LAGUNTZAK

Denon Eskolan IGEetatik burutzen dituzuen formazio ekintzetarako laguntza eskaini nahi dizuegu, eta horretarako gure ahalmenaren neurrian diru-laguntzak eskainiko dizkizuegu.

Eskatzen zaizuen baldintza bakarra antolatutako saioak gure web gunean iragartzea eta beste IGE guztientzat irekiak izatea da.



## informazioa eta aholkularitza

Denon Eskolaren zeregin garrantzitsuenekoak IGE guztiak gurasoentzako zein ikastetxeen funtzionamendurako interesgarriak suerta daitezkeen gaien inguruan ondo informaturik edukitzea eta zalantzak eta arazoak konpontzeko garaian aholkularitza ematea dira.

Zentzu honetan, hainbat dira esparru honetan Denon Eskolak garatzen dituen lan ildoak:

- Diru-laguntza deialdien bidalketa.
- Hezkuntzan ematen diren berrikuntzen inguruko informazioa eta aholkularitza:
  - Ikasturte hasierako zirkularrak.
  - Legeria eta araudia.
  - Ikastaroak, jardunaldiak eta mintegiak.
  - Ikastetxeetarako ekintza interesgarriak.
- IGEentzako erabilgarriak izan daitezkeen txosten, material eta informatzeko eskuko orriak prestatzea.
- Informazio bilerak edota ikastetxeetako gai partikularrak zein komunak lantzeko bilerak burutu.
- IGEetako eskaerak jaso eta aztertu.

### denona buletina



Hilero ateratzen den aldizkari honetan IGEentzat eta orokorrean gurasoentzat interesgarriak izan daitezkeen gai eta aspektuen inguruko informazioa ematen da.

Interesgarritzat jotzen ditugun gaiei buruzko informazio zehatz eta arina eman nahi da. Gaiak aipatu, planteatu eta proposatzea da haietan sakontzea baino, gurasoen eta IGEen egunerokotasunean beharrezkoa den informazioa hain zuzen ere.

Gainera, agenda atal bat dago non hileko gertakari interesgarrienak IGEei birgogoratzeko asmoz azaltzen diren.

Bestalde, IGEa eta ikastetxearen ingurunean erabilgarria izatea nahi dugu, hori dela eta DinA-3 formatuan proposatzen da ohar tauletan eta antzerako tokietan ezar dadin haren zabalkundea erraztuz.

### web gunea

Komunikazioaren teknologia berriak oso era sendoan ezarri dira gure gizartean hiritargoari informazioa lortzeko bideak erraztuz.

Gure web guneak ondoko helburu hauek lortu nahi lituzke:

- IGEentzat eta haien funtzionamendu egokiarentzat unean uneko informazio, material eta txosten interesgarriak eskaini.
- IGEekin komunikazioa hobetu eta haientzat espresuki sortutako INTRANETaren bidez haien lana erraztuko duen lanabesa eskaini.
- Hezkuntzaren gaineko komunikazio, parte hartze eta eztabaidarako kanal berria ireki familientzat.
- Azken finean www.denoneskola.org guraso eta IGEen artean erreferentzia espazio legez finkatu nahi dugu bai informazio bila joaterakoan zein lanerako tresna bezala.



eskola denon araba



## hezkuntzari buruzko informazio bulegoa

Vitoria-Gasteizko Udala eta Denon Eskolaren arteko elkarlanaren bidez garatzen den proiektua dugu. Hiritar guztiei orokorrean eta IGEei modu partikularrean hezkuntza eta euskal hezkuntza sisteman gurasoek parte hartzeko dituzten baliabideei buruzko informazioa, aholkularitza eta formazioa eskaintzeko zerbitzua dugu.

Gaur egun hain zabala da informazio orokorra jasotzeko eskaintza baliabide espezifikoak ezinbesteko bihurtzen direla. Hauxe dugu Denon Eskolaren Hezkuntzari Buruzko Informazio Bulegoa, euskal hezkuntza sistemaren inguruko informazio espezifikoa eskaini arabar familiei erabakiak hartzea errazteko.

Hezkuntzari Buruzko Informazio Bulegoak orain arte izandako emaitzak ikusita agerikoa da gurasoek zein gazteek hezkuntzaren inguruko informazio eta aholkularitza behar dutela (ez dira ezagutzen eskola eskaintzaren aniztasuna eta ezaugarriak, ez dira esagutzen guraso zein tutore legez dauzkaten eskubideak, ez dira ezagutzen eskolaren esparruan parte hartzeko aukerak, laguntzak, bekak,...).

Zentzu honetan aipatzekoa da ere Informazio Bulegoak ikasle etorkinen familiei arreta berezia eskaintzeko atal berezia daukala oso egoera eta problematika berezia bizi duen kolektiboa baita.

Gainera Informazio Bulegoak Euskal Hezkuntza Sistemaren Behatokiaren funtzioa ere betetzen du jasotako kontsulta eta eskariekin, bertatik sustatzen diren ikerketa ezberdinekin batera, urteko txostenak burutzen baitira antzemandako gabeziak eta problematika hezkuntzaren esparruan erantzukizuna daukaten administrazioetara helarazteko.

**Denon Eskolaren egoitzan zuzenean zein telefonoz 945 27 31 40 edo posta elektronikoz: denon-informacion@ehige.org erantzuten dugu**

### helburuak:

- Hezkuntza sistemarekin loturiko gaien inguruko kalitatezko informazioa emateko zerbitzua eskaini.
- Ez betetako edo gaizki betetako beharrak antzeman.
- Ikastetxeetan burutzen ari diren esperientzia interesgarriak jaso.
- Informazioa eraman behar den erakunde eta instituzioetara haien funtzioak modu egokian bete ditzaten.

zerbitzuak

## solaskidetza

Arabako ikastetxe publikoetako IGEek Denon Eskolan elkartzea erabaki izanak ahalmena eta solaskidetzarako indarra handitzeko ahaleginak metatzea suposatzen du.

Gaur egun Denon Eskola ezinbesteko solaskidea da bai administrazio publikoen aurrean (Eusko Jaurlaritza, Aldundia eta Udalak) zein hezkuntzarekin loturiko erakundeen aurrean.

## erantzukizun zibileko asegurua

Guraso Elkarte guztiek haien ohiko ekintzak burutu ahal izateko horiek estaliko dituen erantzukizun zibileko asegurua izan behar dute.

Zentzu honetan, Denon Eskolak badauka federaturik dauden IGE guztientzat erantzukizun zibileko asegurua. Aseguru horrek antolatzen dituen ekintzetan IGEa zein hauek ordezkatuz aritzen direnen erantzukizun zibila estaltzen du. Zuen IGEari dagokion polizaren kopia bat eska dezakezue Denon Eskolaren bulegoan.



## ehige

Era berean Denon Eskola beste euskal guraso elkarteen federazioekin elkarturik EHIGE (Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteen Konfederazioa—Confederación de Asociaciones de Madres y Padres de Euskal Herria) Konfederazioaren kide da zeinean hainbat ekimen eta proiektu bultzatzen diren herrialde guztientzat komunak diren gaien kasuan Administrazioaren aurreko solaskidetza papera betetzeaz gain.

**Zentzu honetan aipagarria da EHIGE Konfederaziotik ondoko ekimenak burutzen direla:**

- **Euskal Eskola Publikoaren Jaia, urtero ekaineko lehen igandean ospatzen dena.**
- **Ehige aldizkaria, bi hilean behin kaleratzen den aldizkaria.**



eskola denon araba